

**1**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*466/2020, Foru Agindua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira, 2020ko azken hiruhilekorako eta 2021eko lehenengorako, makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan aplikatu beharreko kuota finkoak autolikidatzeko epeak.*

Otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duenak, ezartzen du Jokoaren gaineko Zergaren zerga egitatea joko jarduera jakin batzuk baimendu, antolatu edo egitea dela, bitartekoa edozein dela ere, eskukoa, teknikoa, telematikoa edo interaktiboa. Jarduera horien artean makinak erabiliz egiten diren jokoak daude.

Horrelako kasuetarako, 12. artikulua dio ausazko jokoak egiteko gai diren makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan, kuota finko bat exijituko dela makina edo aparatu bakoitzeko. Orobat, ezartzen du ezen ustiapenerako baimena lortzen den urtean edo baimen hori eten, errebokatu edo azkentzekoan, kuota hiruhileko naturaletan hainbanatuko dela baimena ematen denetik aurrera edo hari baja eman, hura eten edo errebokatu arte.

Bere aldetik, abenduaren 21eko 1330/2001 Foru Aginduak, zorte, apustu eta ausazko jokoen gaineko tributuak aitortu eta likidatzeko erabili beharreko 040, 042, 044 eta 046 ereduak onartzen dituenak, jolas edo ausazko makinekin egindako zorte, apustu eta ausazko jokoen gaineko tasa fiskala autolikidatzeko 044 ereduaren onartu zuen (jokoaren gaineko zerga, lehen aipatutako 1/2005 Foru Arauaren onarpenetik aurrera).

Foru agindu horren 3. artikuluko hirugarren apartatuak, ekainaren 17ko 584/2008 Foru Aginduaren bidez aldatuak, dio 044 ereduaren aurkezpena eta ordainketa hiru hilean behin egingo dela, martxo, ekain, irail eta abenduaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan.

Jarduera ekonomikoa mugatzeko hartu diren neurriek, zeinak foru agindu hau egiteko unean oraindik indarrean baitaude, eta, are gehiago, Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak ostalaritza eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuak erabat ixtera behartu izanak –6/2020 Dekretua, urriaren 26koa, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio neurriak hartzen baitira alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko–, komenigarri egiten dute 044 ereduaren aurkezteko erregela bereziak ezartzea 2020ko azken hiruhilekoari eta 2021eko lehen hiruhilekoari

dagokienez.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra.*

2020ko azken hiruhilekoari eta 2021eko lehen hiruhilekoari dagokien 044 eredua 2021eko urtarrilaren eta urte horretako apirilaren lehen hogeita bost egunetan, hurrenez hurren, aurkeztu eta ordaindu beharko da.

Halaber, makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko zerga helbideratuta dagoen kasuetan, 2020ko azken hiruhilekoari eta 2021eko lehen hiruhilekoari dagozkien zenbatekoak 2021eko urtarrilaren 25ean eta apirilaren 26an kargatuko dira, hurrenez hurren, zergadunak adierazitako banku kontuan.

*Azken xedapen bakarra.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko azaroaren 30a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(6404)